

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko maiatzaren 22an egindako ohiko bilkuran, Udaltzaingoko 25 agente-lanpostu eta 1 komisariorde plaza betetzeko enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen

Funtzio Publikoaren Sailak, Segurtasun Sailarekin koordinatuta, Udaltzaingoko agenteen lanpostuak betetzeko enplegu publikoaren eskaintza onestea aurreikusi du.

Erabaki honen xedea da Udaltzaingoko 2026ko enplegu publikoaren eskaintza onestea (2. fasea), udal-plantilla behin betiko onetsi ondoren (apirilaren 1eko ALHAO, 39. zenbakia), zeinaren bidez, besteak beste, 26 plaza berri gehitu baitzitzaizkion polizia-kidegoari. Antolaketa Zerbitzuaren 2026ko maiatzaren 13ko txostenaren arabera, polizia-kidegoaren eskaintzaren lehen fasea hutsik zeuden 28 plazak osatzen zuten, Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko otsailaren 6an onetsiak (2026ko otsailaren 16ko ALHAO, 20. zenbakia). Erabaki horrek eskaintzaren bigarren fase bat aurreikusten zuen, plantilla behin betiko onetsi ondoren. Udaltzaingoko 2026ko eskaintza gehigarri hori (2. fasea) honela dago osatuta: 1 komisariorde plaza, Udaltzaingoko eskala exekutibokoa, komisariorde kategoriakoa (4003B), zeina barne-sustapeneko txandaren bidez betetzeko eskainiko baita deialdian, eta polizia-agenteen 25 plaza (horietako 19k 2. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data dute), Udaltzaingoko oinarritzko eskalakoak, agente kategoriakoak (6003C), deialdian txanda irekiaren bidez betetzeko eskainiko direnak.

Beraz, 2025erako enplegu publikoaren eskaintzaren bigarren fasea onesten da, 26 agente-lanpostu betetzeko, honako hauetan ezarritakoaren arabera: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 91.1 eta 127.1.h) artikulua; Enplegu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikulua; Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52.1 artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 63. artikulua.

Birjartze-tasari dagokionez, Antolaketa Zerbitzuak tasaren kontsumoari buruz egindako txostenaren arabera, lehentasunezko sektorea denez gero, betetzen dira haren kontsumoari dagokionez udaltzaingoarentzat ezarritako ehuneko 125eko birjarpen-tasari dagozkion mugak, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 20.1 Bi. C) artikuluan ezarriak (Estatuko Aurrekontu Orokor horien eraginkortasuna luzatu egin zen 2026ko urte honetarako).

Enplegu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren (EPOETB) Legearen testu bateginaren 37. artikulua betez, Udaleko Langileen Batzordearekin negoziatu da dossier hau.

Era berean, txosten ekonomikoa egin da, baita Kontu Hartzailatza Nagusiarena ere, eskaintza hau onestearen aldekoak.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortzen dizkion eskumenez baliatuz, eta 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez Funtzio Publikoaren zinegotziaren esku utzitako aginpidea betez, Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau aurkeztu dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena: 2026ko Udaltzaingoaren kidegoko enplegu publikoaren eskaintza onestea (2. fasea), udaltzaingoko agenteen 25 plaza huts betetzeko (horietatik 19k hizkuntza-eskakizuna dute, derriortasun-dataduna), zeintzuk Udaltzaingoaren oinarrizko eskalakoak baitira, agenteen kategoriakoak (6003C), eta txanda irekiaren bidez betetzeko eskainiko baitira deialdian. Eta, halaber komisariordearen 1 plaza betetzeko, Udaltzaingoaren eskala exekutiboan, komisariordeen kategorian (4003B); barne-sustapeneko txandaren bidez betetzeko eskainiko da deialdian.

Bigarrena: enplegu publikoaren eskaintza ALHAOn argitaratzea.

Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Orokorriari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin lotuta) ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko maiatzaren 14an

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO